

OLERKARI GAZTE BAT: XABIER LETE



Zai nengoen.

Lete'k berak esanda nekien olerki-liburu bat laister agertuko zuela. Bildur nintzan ere, eta nere kolokarako nion: «Berriz ere euskaltzaileok bertsotara ari». Bildur hortatik nora naizen azaltzea, beraz, bidezkoa da. Eta egia aitortuko dut huas-hutsik.

«Egunetik egunera orduen gurpilean» liburua desberdina antzeman uste dut.

Lehendabiziko atalean, idazkera bitxiak harritu egin ninduen batzutan: gora eta beheara ibilli behar irakurtzeko, esate baterako. Ba dakit hari modan dagoena. Geure Martin Ugaldeloren xehetasun batzuk ditu bere erderazko «Las Grandes Manos de la Niebla» deriztanean. Edward E. Cummings'en

harrigarrikeriak ez dira gaurkoak, eta oso zabaldu dira idazleen artean. Xabier Lete modan dago alde hortatik. Baiña ni bildur nintzan artifizialkeria hura ez ote zan gehiegizkoa. Hasierako tankera eta doinu batzuk ez zitzaizkidan, beraz, egokiak iruditu. Mordoilloegi antzeman uste nuen hizkera ere, funtsa aldiz ukakorregi, desegoki.

Lehenengo zatit hortan, halere, huntaz ez dut zalantzarik egin irakurraldi guztitan, Lete'rengan sustraitutako idazle bat, olerkari «engagé» bat aurkitu dut, ez ameslari bat; eta hau ez da ifundik ere akats bat. Ez horixe! Lehendabiziko partean, hortara, aldekatasun ausart hune salbatzen du dana.

«Aide illun bat» dalakotik aurrera, ordea, liburua ere herenetan beraz, nere bihotza poztu egin zan.

Olerki-guna ez zaio Xabier Lete'ri falta. Liburuan aurrerago, beraz, eta hobe: olerki garratz batzuk dardar utzi nautela aitortu beharrean nago. Gehienetan tristura muzin bat aurreran, olerkitasuna gardenago atxeman dut, hizkera luanduago, lerrobanaketa funtsezkoago, egokitasuna haundiago, eta artifizialkeriarik ez. Hitz batez, atzeko bi herenetan liburua ondu egiten da. Bukatzean, hortara, hunkiturik utzi dut, eta berriz irakurtzeko gogoz.

Bere hogeita-laugarren urtean dagoelarik, Lete gazteak hiru kezka nagusi erakutsi ditu liburuan: jende umillaren aldeko maifetasun suharrara, Euskal Herria'rekiko jaiera bizia, eta heriotzaren tema iraungorra. Hiruak iruditzen zaizkit gizatasun oso baten zantzua; eta gure


literaturaren altzorra aberastu egingo dala uste dut.

Olerki batzutan, esan dudanez, keraz eta funtsez idazle ezagun baten oihartzun gisa mintzo bide zaigu Lete. Hauetan iruditu zait hain zuzen besteetan baiño ahulago. Gehienetan aurkitu dut, halere, sendiberatasun zorrotz bat emai.

Ba du Lete'k, hain zuzen, bere buruz pentsatzeko, senditzeko eta idazteko dohaia. Lehendabiziko liburua ere saioa ongi pasa du, nere ustez.

Ondokoetan ausarki abiatuko dan segurantzian, bihotzez agurtzen du gu eskal alorrera etorri-berria dan oiartzuar hau, idazlan ugaria eman dizeguz askatuz.

LARRESORO



Zenbat urte euki biar dira lana aurkituteko ?

Au-da leenengo bidar euskal aldizkari batera idatziten ausartu naze-na eta, egizko gauzak edo jakotuanak idatzi gure dodaz ZERUKO ARGIAN orri-alderdiren baten egal bat itxi gura baldauzte.

Au da bat; Igarodan egun baten egon nintzan izketan 19 urteko mutil gazte batekin eta berak esan eusten: aitu zer jazo yaten. Leen bear bat, lan bat euki neban, baiña, bertatik urten egin biar izan neban, ze, orko agintariak guztiak odola ateratia baiño besterik eztabe gura, eta, ori dalata gaur goizian Bilbao'n izan naz, ia izparringietako iragarkiak irakurri ondoren idazkolea edo ofeiziñen baten lanik aurkitu aal'baneuen Baiña, alperrik! Ezegun niretzako ezer 19 urte daukatezelako eta «mili», gudaritza egin barik nagolako. Bilbao'rik erdia gitxienez ibilli nintzan, baiña, danetan itaun bardiña, zenbat urte daukozuz? —emeretsi!—; orduan eztago zeregi-ñik, Azkenez oldoztu neban nire arazua konponduko dauena idazkolea (oficina de colocaciones), ta, oldozpen orreikaz Juan nintzan bertara eta aldixtu bat itxaroten egon ondoren itandu eusten zer nai dodan; biarra, lana neure lanbidean.

- enbat urte daukozuz?
- Emeretsi, esan nion.
- Ez dago zuretzan lanik.
- Orduan gozeakin il biarko naz?
- Ba'ltizake sari-langille edo peon gogorren baten egin nai-epadozu beintzat.

Orduan konturatuten da gorago edo berago gizona makiñabat baiño

eztala. Bertatik urten ebanian madarikatu ebazan aldi ontako araudiak gazte zintzuen eragozpengerriak baiño eztilalako.

BESTE JAZOKUN BAT... Orain illa batzuk, urte bat edo zerbait geiago biar bada. Gure erri inguruko lanadola andi baten iragarri eben, 30 urte-tik berako langillak biar ebazala; ori jakiñik, aurkeztu zan bertara gure adizkide bat, gizon zintzoa, langillea bera, eta egin eutsezan azterkata, esamiña guztiak, ze ikasi eukan, ze luzera ta zabalera soñia eukan da abar, danak ondo. Eta orduan itandu eutsen ia ezkongeia edo ezkondua zan.

- Ezkondua, seme-alaba biren aita, erantzun eutsien. Ori entzun da pikzat muzturra okertu eban azterkelariak, baiña, jarraitu ei-eban; zenbat urte daukazuz?
- Ogei ta amar eta bost ilabete.
- Orduan eztago emen zuretzan lanik, ogei ta amar urte igarota daukazuz-da.

Orregaitik itanduten dot nik, zenbat urte euki biar dira gizon ikasi batek, gizon osasuntsu ta zintzo batek duintasunezko (dignidadesko) lan bat aurkituteko, Jaungoiko'ren lepian gizontasun guztiaz da ez jopu bat-legez bizitiko? 19 urte'koak «mili» egin eztabelako, eta 30'tik gora daukezanak «Zaarak» ba'dira, jayotzatik asita egon biar eta gara eukitsu bijotz gogor-dunan baten penpiñ?

EGIRAUN'DA J. K.

Asteazkenero, gabeko amaiketean, SER katearen bidez eta beste
España'ko irratsaio batzuen bitartez

Coca Cola'k eskeintzen dizuen irrati-aldia